AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3528

1164/2011 EBAZPENA, ekainaren 21ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Javier Arispe Ruiz de Gauna jauna Santiago Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzen duena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 1eko 2412/2008 Ebazpenaren bidez, Santiago Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari izendatu zen Javier Arispe Ruiz de Gauna jauna.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gainerako xedapenak aztertu eta gero, Zuzendaritza Nagusi honek hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.- Javier Arispe Ruiz de Gauna jauna Santiago Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.- Ebazpen honek 2011ko ekainaren 21etik aurrera izango du indarra.

Hirugarrena.- Ebazpen hau interesdunari, Erakunde Zentraleko Giza Baliabideen Zuzendariordetzari eta Santiago Ospitaleari jakinaraztea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko ekainaren 21a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.